

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5595

1619/2023 EBAZPENA, azaroaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez María Isabel Idigoras Rubio andrea izendatzen baita Koloneko eta Jaio Aurreko Minbiziaren Baheketako Unitate Korporatiboko burua izendapen askeko lanpostua betetzeko, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan, Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan, Koloneko eta Jaio Aurreko Minbiziaren Baheketako Unitatean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian.

Ikusita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren uztailaren 20ko 1032/2023 Ebazpenaren bidez Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan Koloneko eta Jaio Aurreko Minbiziaren Baheketako Unitate Korporatiboko buruaren lanpostua betetzeko deialdia (2023ko irailaren 8ko EHAAn argitaratu zen).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere. Hala, aurkeztutako dokumentazioa kontuan izanik, Balorazio Batzordearen ustez, María Isabel Idigoras Rubio aproposa da deialdiko lanposturako, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia du.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Isabel Idigoras Rubio izendatzea Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan Koloneko eta Jaio Aurreko Minbiziaren Baheketako Unitate Korporatiboko buru, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Izendapen honek 2023ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.